

## **"JULIO CARO BAROJA" NAFARROAKO MUSEO ETNOLOGIKOKO INBENTARIOA ETA FUNTSAK ZUZENEAN KONTSULTATZEKO BALDINTZAK**

Museoko funtsen inbentarioa kontsultatu edo/eta bildumako pieza batzuk pertsonalki aztertu nahi dituztenek kontuan izan beharko dituzte xehetasun hauek:

1. Eskabidea idatziz egin beharko da, zein posta bidez, zein posta elektronikoz, helbide hauetara: Nafarroako Museo Etnologikoa, Merkatondoa, 13-4. nabea. 31200-Lizarra eta [museo.etnologico.navarra@navarra.es](mailto:museo.etnologico.navarra@navarra.es).

Eskabidean idatziko da zergatik kontsultatu nahi den inbentarioa edo aztertu piezak, baita eskatzailearen datuak ere, NANA barne.

2. Piezak jendearentzat bisitagarri ez diren aretoetan bilduta daudenez, nahitaez hitzordua jarri behar da museoko teknikariek. Lana egun baliodunetan egingen da, astelehenetik ostiralera. Ordutegia: 08:00-15:00. Piezak aztertzerakoan beti egonen da bertan museoko teknikariren bat.

3. Ikerketarako baizik ezin dira egin piezen argazkiak eta/edo marrazkiak. Debekatua dago haiek argitaratzea. Horretarako baimen berezia behar da.

4. Irudiak non agertzen diren, han adierazi beharko du ikertzaileak datuak non eskuratuak dituen, modu honetan: "Julio Caro Baroja"-Nafarroako Museo Etnologikoko funtsak. Nafarroako Gobernua.

5. Azterketan bildutako datuak agertzen diren argitalpen(ar)en ale bat igorriko du "Julio Caro Baroja" Nafarroako Museo Etnologikoko liburutegira.